

IRURA. HERRI-OSTATUA

1. HERRI BATZARRA

Eguna: 2022/03/21

Ordua: 17:00-19:00

Lekua: Irurako eskola zaharreko gela borobila

Bilera modua: Aurrez aurre

Parte hartzaileak:

- 11 lagun, 6 emakume eta 5 gizon

1. Sarrera

Gorka Muruak, Irurako alkateak, partaidetza-prozesuaren testuingurua partekatu eta gaurko bilera kokatu du. Ondoren, Elhuyarreko Idurre Zugazagastik eta Maite Unzaluk saioaren helburua eta planteamendua azaldu ditugu:

- **Helburua:** Irurako herri-ostatuaren definizioan sakontzea
- **Planteamendua:**
 - Sarrera
 - Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua kokatzea
 - Irurako herri-ostatuaren balioak
 - Irurako herri-ostatuaren zerbitzuak adostea.
 - Balorazioa eta itxiera



2. Aurkezpena

Jarraian, eta herri-ostatuaren lanketan buru belarri hasi aurretik, girotze-ariketa bat egin dugu.

Irurako herri-ostatua edari bat balitz...?

Banan bana, gure burua aurkeztearekin batera, Irurako herri-ostatua zein edari izatea gustatuko litzaigukeen eta zergatik konpartitu dugu.

- Ardoa
- Askotariko edariak, barra librea, guztiontzat irekia izan behar duelako.
- Sagardoa, bertako produktua delako eta lagun arteko topagune izaten delako.
- Sagardoa, zipriztinak
- Ura, bizitzarako ezinbesteko elementu dugulako.
- Ura, denontzat, herritar ororentzat eskuragarria delako.

3. Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua


Irurako herri-ostatuaren kudeaketa-eredua eta espazioaren antolaketa adosteko partaidetza-prozesuaren helburuak eta lan-prozesua gogorarazi ditugu.

Honekin batera, Irurako herri-ostatuaren inguruko galdetegiaren emaitza orokorrak partekatu ditugu.


Guztira, 62 lagunek erantzun dute galdetegia, 53 pertsonen online eta beste 9ek eskuz.

- Sexuari dagokionez, galdetegia erantzun dutenen % 66 emakumeak dira, % 32 gizonak eta gainerako % 2 ez-bitarra.
- Adinean berriz, erantzun dutenen % 42 31 eta 45 urte bitarte ditu, % 34 46 eta 60 urte bitarte, % 21 16 eta 30 urte bitarte eta % 3 60 urtetik gora.

Sexua




Adina



4. Irurako herri-ostatua

Irurako herri-ostatua zein balioen gainean eraiki behar den galdetu da herritarrei, eta hurrengoak izan da erantzuna:







1. Gertukoa, herritarrentzat konfiantzazko eta erreferentziako leku izango dena (% 24)
2. Bertakoa, garaiko eta bertako produktuekin lan egingo duena (% 19)
3. Parte hartzailea, herritarren eta herriko eragileekin elkarlana sustatuko duena (% 19)
4. Euskalduna (% 18)
5. Inklusiboa, herritarren askotariko beharrianak aintzat hartuko dituenak (% 11)
6. Ingurumenarekiko jasangarria (% 4,5)
7. Segurua, emakume eta gizonentzako espazio atsegina eta segurua izango dena (% 4,5)



Nolakoa?

Galdetegiko balioen leheneste ariketako erantzunak oinarri, parte hartzaileek, hiruak, Irurako herri-ostatuak zein hitz, kolore eta irudirekin identifikatzen duten adierazi dute. Erantzunak post-itean idatzi ondoren, irakurketa orokorra egin dugu.

HITZ BAT	IRUDI BAT	KOLORE BAT
<p>Koktela</p> <ul style="list-style-type: none"> · Herritarren, osagai desberdinen arteko nahasketa <p>Txinparta</p> <ul style="list-style-type: none"> · Bizia ematea, suaren txinparta 	<p>Hexagonoa</p>  <ul style="list-style-type: none"> · Sei puntetik balioak, eragileak... irudikatzen dituzte · Ezberdinen arteko batura. 	<p>Berdea</p> <p>Lau taldeak proposamen berdina egin dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> · Herriko kolorea da · Herriko festak · Lurrarekiko lotura · Ingurumenarekiko errespetua
<p>Haria</p> <ul style="list-style-type: none"> · Elkar batuko gaituen haria. Sareak gehiegi lotzea iruditu zaigu 	<p>Zubia</p>  <ul style="list-style-type: none"> · Denok batuko gaituen leku bat. 	
<p>Sarea</p>	<p>Aurpegi irribarretsua</p> 	
<p>Heltzea</p> <ul style="list-style-type: none"> · Kozinatzea, su baxuan, etxeko errezetak · Bueltan herritarrak batuta 	<p>Giza dorrea</p>  <ul style="list-style-type: none"> · Oinarri sendoko proiektua · Denok garrantzitsuak gara 	

Zer?

Taldeka, hurrengo galderak erantzuteko eskatu diegu, Irurarren beharrak kontuan hartuta, eta partaide bakoitzari esleitutako roletik.

- Irurako herri-ostatuak ZER eskaini behar du?
- Ostalaritza-zerbitzua, kultur jarduerak... eta zer gehiago?

Taldeak egiteko, partaide bakoitzari rol bat banatu diogu, horretarako, fitxa bat hartu dute eta talde txikitik bildu.

- Haur eta nerabeak
- Gazteak
- Helduak (herrikoak, langileak, bisitariak...)
- Adinekoak

0-18 urte		
Ostalaritza-zerbitzua	Kultur jarduera	Beste zerbitzu batzuk
<ul style="list-style-type: none"> - Alergeno karta eta formakuntza - Goxokiak - Piza-hanburgesa sartzea eskaintzan - Bokatak 	<ul style="list-style-type: none"> - Pailazoak, magoak, ipuin kontalariak... - Beraien proposamenak ahalbidetzea kultur mahaietan - Gaztetxoan eguna urtean behin, festetatik kanpo. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irisgarritasuna, sillitak.. - Herriko informazioa, triptikoak, udalean eta ostatuan. - WIFI-a - Iturriko ura emateko erraztasuna - Urtebetetze festak - "Kanbiadorea! komunean - Mahai-jolas sorta

19-35 urte		
Ostalaritza-zerbitzua	Kultur jarduera	Beste zerbitzu batzuk
<ul style="list-style-type: none"> - Eskaintza merkea eta zabal, glutenik gabe plater-bokata-pintxo-razioak. Aukera begetarianoa. - Herriko edo gertuko produktuak - Pintxo-potea egotea 	<ul style="list-style-type: none"> - Formatu txikiko kontzertu antzezlan, dantza edota bertso-saio emanaldiak. - Herriko edo gertuko kultur eragileei espazioa ematea. - Eszenario txiki bat eduki horrelako ekintzetarako. Ez dagoenean, mahai baten gainean jarrita. 	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruko informazio turistikoa eskaintzea, harrera. - Liburuak trukatzeko espazioa - WIFI - Mugi txartela kargatzeko aukera.

36-64 urte		
Ostalaritza-zerbitzua	Kultur jarduera	Beste zerbitzu batzuk
<ul style="list-style-type: none"> - Bertako produktuak kontsumitzea edo saltzea - Giro lasaia eta egokia adinetan egokituta (musika, bolumena...) - Trago+pintxo bat lasai jateko lanetik atera ondoren. - Kontutan lasai egotekoa aukera. - Herriko beste tabernekin herrian giroa sortzeko pintxo potea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kirolak ikusteko pantaila (taldean ikusteko) edo pelikula, lehiaketak egiteko... - Bertsolariak, edo euskal kultura, kontzertuak... - Antzerkiak - Ordutegia langileentzat egokia - Nekazari eguna ospatzea. 	-


65-90 urte		
Ostalaritza-zerbitzua	Kultur jarduera	Beste zerbitzu batzuk
<ul style="list-style-type: none"> - Sukaldaritza tradizionalak bere tarteak edukiko duena eskaintzaren barruan. - Osasun ikuspegi baterik, produktua eta sukaldatzeko modua egokia izatea behar desberdinak dituzten pertsonekin (gatz gutxi, alergeneoak, etab) - Zailtasun ekonomikoak dituztenentzako bono bereziak (pentsiodunak, jubilatuen...) - Kontsumitzeko dagoen plater eta ogitartekoen zerranda, ulertzeko modu errazean egotea (irudiak) eta ulertzen ez duenari zerbitzariak argitzea. - Irisgarritasuna, adineko pertsonen beharri egokituta. 	<ul style="list-style-type: none"> - Adinekoentzako mahai joko saioak antolatzea. - Antolatzen diren hitzaldien artean, Irurara etorri diren jatorri desberdinetakoen bizipenak lekua izatea. (Kultura, hizkuntza). Kulturartekotasuna lantzea. - Herri ondarearen transmisioa egitea. Iruran bizitzeko esperientziak kontatzeko aukerak zabalduz. - Euskaldun berri direnak elkartzeko topagunea izatea, euskalduntze prozesua aisialdiarekin ere lotzeko 	-

Talde txikitan landutakoa aurkeztu aurretik, Irurako herritarrei zabalduko galdetegiko erantzunak zeintzuk izan diren partekatu dugu, adin-tarte bakoitzari begirako beharretan beste elementuren bat jasotzeko beharra ikusten ote zegoen jakiteko.

Ostalaritza-zerbitzuari dagokionez, zein eskaintza lehenesten duzu?

Hurrenkera hurrengoa izan da:

- Bokatak
- Plater konbinatuak
- Pintxoak
- Eguneko menua
- Gosariak
- Karta



Eta kultur jarduerari dagokionez, zein kultur-eskaintza egotea gustatuko litzaizuke?

Gehien errepikatutakoak: kontzertuak, antzerkiak, erakusketak, hitzaldiak...



Ostalaritza-zerbitzuaz eta kultur jardueraz gain, zein beste zerbitzu eskaini beharko luke Irurako herri-ostatuak?

Hainbat izan dira jasotako proposamenak, tartean:

- Informazio eta harrera gunea
- Herritarren iradokizun eta parte hartzerako buzoia
- Bertako nekazal produktuen, zein artisau produktuen salmenta tokia
- Gozokiak
- Paketeak jasotzeko aukera izatea
- Mugi txartela kargatzeko puntua
- Kirola sustatzeko gunea
- ...

Honen ondoren, talde bakoitzak esleitutako adin tarteko pertsonen beharrak kontuan hartuta, landutako proposamena aurkeztu du.

8. Itxiera

Amaitzeko, partaide bakoitzari post-it bana eman diogu eta gaurko herri-batzarra hitz batekin baloratzeko eskatu diegu. Honakoa izan da emaitza:

- - 45', + 1h
- Bestearen lekuan jartzearekin gustura. Aberatsa
- Dinamikoa
- Gustura, ideiak paperean jasota
- Herrigintzan
- Ilusioa
- Ilusioarekin, interesatuta
- Irudikatzen, amesten
- Lagungarria
- Nahiko ondo, itxaropentsu
- Prozesua hartzen ari den formarekin interesatuta

Eskerrak eman eta hurrengo herri-batzarra apirilaren 4ean dugula gogoratu dugu, etxerako lanak banatzearekin batera.

Partaide bakoitzak lagun bat ekarri behar du hurrengoan!